

Sutondoaren epelean Marisa Arizaga irakaslea jubilatuta da
Kultura Kontrargiren Gaztañerreko argazki erakusketa

Erregaloz beteta dago!

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
124. alea, 2005eko
abenduarien 23an



Erregaloz
beteta dago!



Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Gabonak euskaraz!



Urteberri Eguneko zozketa

€1

URDAIAZPIKOA




CAVA KAXA



Urtarrilaren 1ean Udaletxepean jarriko da zerbakia

SORALUZEKO
EGUTEGIA



GABONETAN
EUSKAL MUSIKA
OPARI
EUSKAL KDAK
MERKE MERKEI



Abenduaren 24an eta 31an
Udaletxe azpian
izango dituzu eskuragai!



LUIS GOMEZ

Gure Gabonak

Gaur egungo gabonak kontsumokieriaz josita aurkitzen ditugu, baina horrez gain badaude beste gauza batzuk jai hauek berezi egiten dituenen. Gauza asko biltzen dira batera egun hauetan, Jesusen jaiotzaren oroimena, neguaren hasiera, urte aldaketa eta jaiak ospatzeko ohiturak nabarmentzen dira egun hauetan.

Eguberri hitzak, negu hasieraren ondoko lehen eguna adierazten digu. Kristauok eguzkiaren jaiotzarekin, Jesusen jaiotzarekin lotu oi ditugu, horrexegatik aukeratzen da egun hori Jesusen jaiotza ospatzeko; Jesusek delako gure ilunaldietatik ateratzen gaituelako. Baina gaur egun zein ilunaldietatik aldentzeko beharra sumatzen dugu?

Gabonetako egunak bereziak izaten dira, batzuentzat alaiak eta itxaropentsuak; umeentzako batez ere, baina edadetuentzako tristurazko egunak izan ohi dira. Oraingoz etxeokoekin elkartzen gara egun hauetan, eta "El almendro" bezalaxe gabonetan itzultzen dira gure herrira, lagun eta senide asko. Egundak iragana, oraina eta etorkizuna nahasten dira. Adinetan aurrera goazenongan iragana azaltzen da, gogoratzen gara falta diren senideez, bai kanpoan daudelako, edo betirako aldentu direlako; eta tristuratxo bat sortzen da geure barrenean. Egundak iragana, topetaraino jartzen gara, jai giroa nabarmentzen da gure bazkari oparoekin, parranda egunak dira. Eta egundak iragana gure bizitzako ziklo txiki bat ixten da eta beste berri bat zabaldu nahi dugu, eta beti itxaroten dugu hasiko dugun urte berria hobeagoa izan dadila.

Azken finean egundak iragana bizitzaren misterioa ospatzen dugu, iragana eta etorkizuna azaltzen dira nolabait, alaitasuna eta tristura, baina saiatzen gara baikortasunez ospatuz, itxaropenaren argitxoak sumatzen.

Baina badago ilunaldiren bat geure bizitzatik aldentu beharrekoa dela iruditzen zaiguna? Egundak iragana sentimendu kontrajarriak kontutan hartzen baditugu, agian bada ordua garrantzi pixkatxo bat emateko benetako bizitzari eta aldentzeko hain errotoak dauzkagun kontsumozko itxurakeriaren itzalak.

Telegrapak

Eguberri on!. Stop. jantzi eskixak eta guazuen aldizkarixan barrena. Stop. jentziaren desio eta eskakizunak datoz eritziaren atalari. Stop. Parrokiko Taldiak Gaztetxia desagertzeko asmuaren kontrako elegitia jarri dabela jaso dogu zer berrin. Stop. eta Udala 2006ko otsailian 7 urte itxita beteko dittuan zine mitiko haura erabilera anitzeko antzoki bihurtzeko asmua daukala bebai. Stop. bereziki poztu gaittu berri honek. Stop. bestiak beste ixa Pil-pileanen sorreratik ez dogu-lako eszenatoki duin bat izan herri honetan. Stop. herritarren moduan kultur mugimenduko talde eta pertsonok be desiatzen gare proiektua ikusteko. Stop. eta espero dogu egin aurretik ikusiko dogu... Stop. Gabonetako agenda potolua be badakargu. Stop. Gaztetxeko Hamabostaldi Kultural mardul hori barne. Stop. Jauregi eta Mendiaren lorpenak bebai. Stop. Marisaren agurra. Stop. eta urteko azken zenbakixa danez urtiari errepasso bat egitteko be aprobetxatu dogu. Stop. guk be beti ez dogu asmatzen. Stop. baina ahalegina egiten dogu. Stop. ahalegina, plazentziatarrori ahalik eta informaziorik objektibuen helarazten. Stop. ahalegina, herriko gertakizun eta ekintza danen berri emoten. Stop. ahalegina, plazentziarrendandik hurbil egoten eta gugana datorren danari laguntzen. Stop. hori da herri aldizkari baten egittekoa eta horretan ahalegintzen gara. Stop. geure hankasartze eta aziertuekin. Stop. beraz, geizki esanak barkatu eta ondo esanak goguan hartu. Stop. urte berri bat dator. Stop. eta horrekin aukera berri bat hobetzeko!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze.
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa:
Maku Oruezabal eta Egoitz Unamuno
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartea ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2005 URTEKARIA

2005. urteak eman dituen berririk esanguratsuenak gogora ekarri nahi izan ditugu aurtengo azken alean.





Markel Hontangas Ucin
Azaruaren 12xan
Zorionak!
Ondo pasa eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik!



Garazi Catalan Arenaza
Azaruaren 29xan, 6 urte
Zorionak sorgintxo!
Zure sendien partetik.

Gutunak

Itxaropenerako bidaia

Hotza da giroa Gasteizen abenduan autobus geldokian ostiraletan zai dagoe-nandako. Lotarako zakuaz geltokira hurbiltzen denarekin adiskidetu gara begirada batez.

Iritsi da, halako batean, gizon-ema-kumez, gazte eta zaharrez osatutako duintasunaren autobusa. Xamurtasuna nabaritzen zaie begiradan, ilunabarra da kanpoan.

"Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak ez bada abaildua eta oholetan..."

Abian jarri da itxaropenaren mar-txa. Handik gutxira, barruko argiak itzaltzen hasiko dira; ixiltasunean, be-girada galtzen hasiko baita errepidear-en kontaezineko marretan. Ezker-es-kubian Gaztelako lursoroetako lautad-ak zelatan dauden sentazioekin inguratuko gaitu. Ordu geldoak irensten goaz, lehenengo eraikuntzek Madriler-a heltzeaz gaudela adierazten diguten ar-te.

Nekez uzten du gezalak itsasoa ez hareharriak basamortua...

Bittor Trebiño

Hator, hator etxera

2005ari bukaera emateko gutxi falta de-la eta, Soraluzeko Etxerategi -presoa eta errefuxiatuen senideen kolektiboa -ur-teko balantzea egin du.

Soraluzeko errefuxiatuak:

- Juanjo Urrutia Urugayen hil zaigu aurten, etxetik urrun. Samina eta tris-tura gure bihotzetan.
- Eloi Uriarte: 30 urte herritik kanpo. Soraluzeko presoak:
- Pedro Jose Etxeberria: 3/4ak beteta 2001ean, Castellon dute, senideek eta lagunek 1200 kilometro egin behar izaten dituzte bera ikusteko.
- Lurdes Txurruka: bakartuta dute Huelvan, senideek eta lagunek 2400 kilometro egin behar izaten dituzte bera ikusteko.
- Angel Murgoitio: kartzela masifikat-uan dute Alcalan, senideek eta lag-unek 1000 kilometro egin behar izaten dituzte bera ikusteko.
- Regina Maiztegi: 2 urte baino gehiago epaiketarik gabe, Avilan dute, senide-ek eta lagunek 1050 kilometro egin be-har izaten dituzte bera ikusteko.

Aurten ere, gure senide presoek ez dute euren jaioterrik ahal den eta ger-tuen egoteko eskubiderik izan.

Aurten ere, gure senide presoek ez dute 3/4ak beteta izan eta etxean egote-ko eskubiderik izan.

Goizeko seirak; ilun da oraindik Se-villan. Edozertarako laguntza eskeintzen digun bertako lagun baten eskerroneko hitzek esnatzen lagunduko digute. Huel-van, beste emakume baten laguntzak he-rrien arteko solidaritatean sinisteko adi-biderik argiena eskainiko digu. Autobu-sez egingo dugu ordubeteko bidaia. Azkenik, hirugarren autobusak espetxe-ko atari hotzetan lagako gaitu.

Non gauden jakinaraziko digute mia-keta luze baten bidez. Sei zerraila irekiko dituzte inork handik ezin duela ihes egin frogatzeko, Lurdesekin hitzegiteko, hain zuzen. Begi argi eta irribarre xamur ba-tekin hartu gaitu preso daukaten adis-kideak. Elkarrri ipuinak kontatzen pasa dugu denbora; joan bukatzen, akabo!, agindu diguten arte. Besarkadak kris-talean egin du talka; maitasunak bihot-zean aurkitu du tokia.

Bere sorterrria nekez uzten du Sustraiak han dituenak".

Aurten ere, gure senide presoek ez dute ikasteko eskubiderik izan.

Aurten ere, gure senide presoek ko-munikazioak interbenituta eta murriz-tuta izan dituzte.

Aurten ere, gure senide presoan osasun azterketa hutsaren hurrengo-a izan da.

Aurten ere, gure senide presoak ba-kartzte galerietan izan dituzte.

Baina aurten ere, gure senide presoek etxeko berotasuna eta maitasuna era-man diegu

Baina aurte ere, gure begietako dis-tira erakutsi diegu.

Baina aurten ere, gure ahoetan ba-rrera margotu diogu elkarrri.

Baina aurten ere, gure hitzak xuxur-latu dizkiegu.

Baina aurten ere, eskutitzak haizea-reenkin batera bidali dizkiegu.

Bada garaia sufrimendua oinarri duen sakabanaketa politikarekin amaitzeko. Bada garaia egunero, orduero, minutueroko giza eskubideen urrake-tarekin amaitzeko. Bada garaia presoek eta euren senide eta lagunei aplikatzen diguten heriotza zigorrarekin amaitze-ko.

Soraluzeko ETXERAT

Lehiaketak

Film Laburren lehiaketa

ATZEGI. Adimen urritasuna duten per-sonen partehartzea baloratuko da.18 urtetik gorako pertsona guztiakurkeztu daitezke. Nahi beste lan aurkez daitezke. Gehinezko iraupena 15 minutu. Euskaraz zein gaztelaniaz. Lehen saria 1.500 euro eta lau lagunendako bidaia Italiara. 2. Sa-ria 1.200 euro eta 3.a 600 euro. Lanak Atzegin aurkeztu behar dira martxoaren 31 baino lehen, Okendo kalea, 6 behea. Donostia.

Mihiluze lehiaketa

Laster ETB1en Kike Amonarrizekin. Lehia-kideak behar dira, 18 urtetik gorakoak: umoretsuak, berritsuak eta drogoak. Anima zaitetz, hirukote bat osatu eta jar zaitetz gurekin harremanetan lehenbaile-hen: 943 01 17 84, mihiluze@eitb.com. Primeran pasako duzu eta sari bikaina lor-tu zenezake.

Lana

Dokumentalista 1 Eusko

Legebiltzarrerako.

Unibertsitateko lizentziatura edo balioki-dea eta 3. Hizkuntza eskakizuna.**Epea:** 2006-01-12. Telefonoa: 945 00 40 00 (9:00etatik 14:00ak arte).

Ekintzak

Bilbo Artisautza Azoka

Bilboko Artisauen Elkarte. 2005-12-17tik 2006-01-06ra Bilboko Areatzan kokaturiko azoka honetan, euren lana, trebezia eta produktuak erakutsiko dituzten 44 artisau izango dira. Tfnoa: 94 410 11 46.

Hildakoak

AMANCIO PELÁEZ MARTÍNEZ
MIREN ALBERDI IRIONDO

Eskerrak

Azaruaren 26xan kapillan izan zan fado emanaldira etorri zinateneri eskerrak emon nahi dotsueguz, erakutsi zosku-zuen berotasunagaittik eta baita Gua-temalako Escuela de la Calle eskolara-ko zuen borondate zabala emotiarren. Hango umiek eskertuko dotsue irripar goxo batekin, eta geuk be bai.

Ane, Domentx eta Arianne

Zer irizten dotsazu?

Olentzero, Mari Domingin eta Erregeak Plazentziatik pasako dira aurten ere. Nahi adina opari, desio eta amets ez dituzte lagako, baina eskatzea libre denez, herritarrengana jo dugu datorren urterako nahiko luketenaz galdezka.

Zer eskatu dotsazu Olentzerori? Zer nahiko zenduke 2006. Urterako?



Juanita Rivera
82 urte, etxeoandria

Barruko pakia eukitzia nahi dot, betiko bizi ahal izateko. Datorren urterako eskatzen dotsat Olentzerori miñik barrik bizitzia, eta lasaitasuna eguneroko jardunetarako.



Hasier Ugarte
20 urte, ikaslia

Olentzerori ez dotsat ezer eskatu. Datorren urterako nahiko neuke familixako danok osasunez ondo egotia, eta ikasketetan ondo ibiltzia, azterketak segiduan datoz eta.



Gonzalo Solana
57 urte, langabetua

Lana eta osasuna, hori da garrantzitsuena. Herri honendako bakia eta askatasuna; bide onetik goiazela dirudi baiña ikusi egin bihar. Bartzelona ligako txapeldun izatia bebai.



Nagore Heriz
29 urte, arrainzaintzailia

Gutxienez garen moduan geratzia, ezustekuak ez dira onak izaten eta. Betiko eskaeria bebai: euskal presuak euskal herriratzia. Egutero eskatzen dan gauza bat ia egunen baten betetzen dan.



Manuel Morales
55 urte, garbitzailia

Osasuna inportantiena eta jentia miserixarik ez pasatzia. Bestien zoriontasuna ikusiaz uste dot zoriontsuago izango garala. Ez gaitzezela hain berekoi izan, arazorik gehixenak hortik datoz.



Ana Mari Aristi
70 urte, etxeoandria

Osasuna lehenengo, herri guztiandako osasuna eta pakia. Jente nagusixandako laguntza gehixago be eskatzen dot eta ia Olentzerok gure herriko kalia kurioso jartzen dittuan, danak apurtuta dare eta.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

Tlf.: 943 75 1324

Mug.: 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

8 elegite aurkeztu dizkiote Eraberritze Plan Bereziari



Hilaren 23an amaitu zen Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziari elegiteak egiteko epea. Guztira, 8 izan dira Udaletzeko hirigintza sailean aurkeztutakoak, gehienak partikularrek egindakoak. 8 horietatik 5, etxerako sarbide bat Galipot kalean daukatenen bizilagunenak izan dira, Planak ordenazioz kanpo uzten baititu eraikinetik kanpora irtenda dauden eskailerak. Partikular hauen esanetan eskailerek ez dute jendearen joan etorria galerazten eta aintzinatatsuna eta etxerako sarbidea izatea argudiatu dituzte eskilarak ordenazioz kanpo gera ez daitezen. Etxaburueta 6 ko bizilagunek ere elegite bateratu bat aurkeztu dute, Arrano taberna dagoen etxeetara sartzeko dagoen sarbide bakarra eraikineko eskilarak direla argudiatuz.

7. elegitea eskilara hauen ondoan patioa daukan partikular batekin egin du eta 8. a, berriz, Parrokiako taldeak. Gaztetxearen alde argudiatu dute, herrian gazteriari zerbitzua eskeintzen dion leku bakarra dela, eta bertan herriko gazteek aktibitate sozio-kultural bat eramateen dutela aurrera. Komun publikoetara doazen eskilarak ere ordenazio barruan mantentzeko eskatu dute, beheko lokaletara joateko sarbide bakarra horixe baitute. Aipatzekoa da elkarte edo soziedade gastronomikoetatik ez dela elegite bakar bat ere egin. Datozen asteetan ofizina teknikoak elegiteak aztertu eta hauetatik zeintzuk ontzat hartu erabakiko du. Hurrengo pausoa, elegiteak aztertu eta euren gaineko erabakiak hartuz, Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia behin betiko onartzea izango da.

Zundaketak Erregetxean

Lurtek enpresa zundaketak edo sondeoak ari da egiten egunotan Erregetxean, bertako lurrazpiko materia nolakoa den zehazteko. Zundaketak Erregetxeko 6 puntu desberdinetan egingo dira. Zundaketaren emaitzen arabera, zulaketa nola egin erabakiko da. Hau da lehenengo pausua Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuen proiektua burutu ahal izateko. Aparkamentuak egiteko lanak urte hasieran hasi eta 2006. urtean zehar amaitzea da asmoa.



102 urte bete ditu
Margarita
Larrañagak



Abenduaren 11ean bete zituen Margaritak 102 urte. Pozik hartu zituen egun hartan Zaharren egoitzara urreratu ziren senide, lagun eta udaleko ordezkarien zorion agurrak, bai eta egoitzako langile eta gainontzeko bizilagunenak ere. Datorren urtera arte, Margarita. ZORIONAK!!

Udalak bi lanpostu berri sortuko ditu

Pilpileango azken alean aurreratu genizuen bezala, Udalak bi lanpostu berri sortzeko erabakia hartu du. Bata kirol-gizarte dinamizatzailearena izango da eta bestea berriz, erdimailako ekonomi teknikiarena (administrari eta kirol arduradunarena jarri genuen aurrekoan, oker). Bi lanpostu berriak oposizio lehiaketa bitartez esleituko dira. Orain lehiaketarako oinarriak eta deialdia prestatuko ditu Udalak.

Markesina Ezosi bidera



Hainbat herritarren eskaera aintzat hartuz, Udalak Kañoi fabrika ondoan alperrik zegoen marquesina Ezosi Bideko parke ondora eramatea erabaki du.

Zinea erabilpen askotariko gune bihurtu nahi du Udalak



Kultura sailetik adierazi digute-nez, Udala kiroldegiko zinea erabilpen desberdinetarako gune bihurtzeko aukera aztertzen ari da. Asmoa, zine aretoari ahal denik eta erabilera gehien emotea litzateke, neurri batean herrian dagoen lokal premia arintzeko. Gune berria zinea, antzerki lan bat edo eta musika ekitaldi bat hartzeko egokituko da. Aulkiak ez dira lurrean itsatsita egongo, eta beraz, mugitu egin ahalko dira (eta beharko dira) espazioa komeni danaren arabera antolatzeko. Beti sala bakar bat izateke, beharrezko denean gunea 2 salatxotan banatzeko aukera emango luke honen eta horietako bat erakusketa ge-

la bezala erabili ahal izango da (liburutegia haunditzen denean oraingo erakusketa gela desagertu egingo baita). Herriko zenbait kultur taldek ere bertan ensaiatzeko aukera izango lukete. Aurreproiektua egin aurretik, Udaleko kulturako arduradunak herriko kultur taldeekin elkartuko direla adierazi dute, hauen ekarpena eta eritzia jasotzeko asmoz. Egitasmo honek aurrera egiten badu, areto berria 2007. urtean bukatuta egongo dela uste dute Udaleko ordezkariak. Gogoratu behar da zine aretoa 1999ko otsailean itxi zela, sabaia behera erori zelako. Ordutik itxita izan da.

Bukatu dira ikastetxeko patioako lanak



Plaentxi Herri Ikastetxeko patioako estaltze lanak joan zen astean bukatu zituzten. Ikastetxeko zuzendaritza eta haurrak pozik agertu dira patio berriarekin. Aurrerantzean aterpea izango dute kanpoko patioan euria ari duenerako. Jolas-orduetan eta aisialdian irtetzen dira nes-

ka-mutikoak patiora, eta aspaldi egina zuten estalpe honen eskaera zentroko arduradunek. Lanak irailan hasi ziren eta 197000 euroko kostua izan dute. OZIO enpresak burutu ditu. Orain, megafonia jartzea bakarrik falta da.

Udaltzainek txakurjabeak zainduko dituzte



Azken hilabeteetan herritarren kexa ugari jaso dituzte Udaltzaingoan, kalean ikus edo zapal daitezkeen txakur kakak direla eta. Udaltzaingotik gogorazi dute legearen eta ordenantzaren arabera txakurrak ezin direla jaberik gabe kalean ibili, eta txakurrek egindako kakak jasotzera behartuta daudela jabeak. Urtariletik aurrera, jarraipen haundiagoa egingo zaiela adierazi digute udaltzaingotik, eta hasierako abisuak salaketa bihur daitezkeela esan digute, txakur jabeak legea bahin eta berriro hausten badu. Txip elektronikorik gabe dabiltsan txakurraren jabeak ere zigortuko dituzte. "arduradun eurak direlako, uzten dituzten opariak beraiek jaso behar dituztelako".

Ikastaroak KZGunean

Urtarrilean mintegi berriak izango dira aukeran Sorluzeko Kzgunean.

Hauk dira mintegien izenak eta datak: 6-1-10ean "etxetik eros ezazu", 6-1-16an "Realiza una pagina web", 6-1-17an "Publica la pagina web en tu negocio" eta "Postal bat bidal ezazu" eta 6-1-24an "Egin zure enpresako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak". Bestalde, Kzgunea irekita egongo da urtarrilaren 10, 17, 24 eta 31ean 9:00etatik 13:00etara bitartean. Informazio gehiago bertan jaso daiteke.

Gaztetxeo hamabostaldi kulturala hasi da

Abenduaren 17tik urtarrilaren 8ra bitartean antolatu du Gaztetxeak aurtengo hamabostaldi kulturala. Era guztietako ekitaldiak izango dira (egitaraua kontrazalean dator); mendi garbiketa (egin da), kontzertuak, hitzaldiak, antzerkia, bideo emanaldiak, 2. eskuko gauzen azoka, afaria...



Abesbatzaren gabon kontzertua abenduaren 30ean

Aurtengo gabon kontzertua ostira-lean (hilak 30) emango du Ezoziko Ama Abesbatzak. Kantaldia iluntziko 20:00etan hasiko da parro- kian.

Bestalde, zapatuan (hilak 25) abes- batzakoak zaharren egoitzan kan- taldia eskeini zuten arratsaldeko 17:30etan; ondoren, 18:30etan, me- zetan abestu zuten.

Santo Domingoko Villancico kon- kurtsoa

Abesbatzakoak esku hutsik buelta- tu ziren Errioxatik hilaren 18an Santo Domingo de La Calzadako

XV. Villancico konkursoan parte hartu ostean. Danetariko (haur, gazte abesbatza, orfeoi...)18 abes- batza lehiatu ziren 3 sarietako bat irabaztearren. eta denak entzun os- tean Ezoziko Ama faboritoen arte- an bazegoen ere, epaileek ez zuten abesbatza saritu. Konkursoan gra- zia handiz interpretatu zituzten kantuak (Duerme niño hermoso eta Festejo de Navidad) ostiraleko kontzertuan entzun ahal izango di- ra berriz.

Abesbatzak saldutako loteria toka- tu da. Boleto bakoitzeko 12 euro.

Gaztañerre Azokako argazkiak ikusgai



Kiroldegiko erakusketa gelak Kon- trargiren argazki erakusketa har- tuko du urtarrilaren 5era arte. Ber- tan, Gaztañerre eguneko Rallyeko argazkiak ikusi ahal izango dira. Erakusketa gela 19:00etatik 20:30etara egongo da zabalik aste barruan eta 12:00etatik 13:30 etara bitartean zapatuetan. Larunbatean (hilak 17) Rallyeko sari banaketa egin zen. Lehenengo saria Feo Ber- gararrak eskuratu zuen; bigarrena Fernando Oregi plazentziatarrak eta herriko argazkilari onenaren saria Mikel Cruzek.



Musika eskolako ikasleen kontzertua

Herriko musika eskolako ikasle eta irakasleek gabon kontzertua eskei- ni zuten hilaren 21ean eliza nagu- sian. Biolin, piano, gitarra, txistu, atabal, flauta, bateria, baxu eta tri- kitixa doinuak entzun ahal izan zi- tuzten elizara urreratu ziren ikus- entzuleek. Bandak ere jo zuten eta abesbatzak kantatu. .



Ezoziko Ama Abesbatza

argazkia Juanma Berrueta

Marisa Arizaga ANDEREÑO

Ostiralean (Abenduak 23) Marisaren azken lan eguna izan zen. Jubilazioa hartu du haur eskolako andereñorik helduenak. Berarekin izan gara hasierako urteetatik gaur egunera arte haur hezkuntzan bizi izan duena konta diezagun.



Noiz hasi zihan andereño?

1960. urtian, magisteritza ikasketak bukatu eta gero. Plazentzian egin nittuan lehenengo hilabetiak, behin behinekuak. Gero oposaketetan plazia etara neban eta Nuarbera juan nitzan. Han 3 urte egin nittuan, oso gustora. Negarrez urten neban handik, pentsaizu. Nahiz eta ezkontzeko izan, negarrez

Ezkondu eta andereño izatiari laga zotsazun.

Bai, nerekin ikasi zebe guztiak be ezkondu eta laga egin zebe. Orduan andereño moduan oso gutxi irabazten zan, prestakuntza pixkat nahikua zan lanian hasteko. Oin egoeria askoz hobia da.

Zegaittik ikasi zenduan magisteritza? Neskendako aukera haundirik ez zeguan sasoi hartan. Jente gehixenak ez zeban estudixatzen: eskolatik urten eta ofizinara. Nik estudixatzia nahi neban eta etxian galdetu zosten: "magisteritza egittia nahi dozu?" nik baietz. Ez zan izan holako boikaziñua nekalako. Gerora bai, gus-tau jata andereño izatia.

Noiz bueltau zihan irakaskuntzara?

1992. urtian. Lehenengo urtia Eibarko eskola baten egin neban eta

gero Plazentzian plazia emon zosten. Harrez gero hamen egon naiz.

Lehenago umietatik gaur eungo umietara, ze alde?

Alde haundixa dago. Gaur eguneko umiak rebeldiaguak dira. Ez da nik bakarrik esaten doten gauza bat. Nere lagunak be bueltau ziran eta horixe esaten dabe. Igual gu orduan

Gaurko umiak beste era batekuak dira, ez hobiak eta ez txarraguak, desberdiñak

gaztiak giñalako hobeto eruaten genduan, izan leike, baiña uste dot gaurko jentia beste era batekua dala. Ez hobia eta ez txarragua, beste era batekua. Gaur egun dagan askatasunak giro hobia ekarri dau, eta hori ona da, baiña alde txarrak be badittu. Gaurko errespeto faltia, askotan, lehen ez zeguan. Ni saiatu naiz moldatzen eta moderna izaten, baiña igual nere mentalidadia lehengua da.

Zer ikasi dozu umiengandik eta zer saiatu zara eureri irakusten?

Umiengandik alaittasuna eta ilusiñua mantentzen ikasi dot, gauzeri beste era batera begiratzen. Ni saiatu naiz euren artian errespeto girua sortzen, bestien iritzixak errespetatzen irakusten. Gaiak aparte, noski.

Zer da ume batengandik entzun eta ahaztuko ez jatzuna?

Hau ez egizu jarri eh! Oin dala 10 bat urte, 8 urteko ume baten paper artian zera topau neban idatzitta: "Ke buena estas, komo me gustaria follarte". Berak jakin be ez zeban egingo zer esaten zeban "maitasun karta" hortan baiña neri ez jata sekula ahaztuko.

Zetan emongo dozu denboria jubila-tzen zaranian?

Danerako denboria eukikot. Mendixan ibiltzia gustatzen jata, musika klasikua entzutia, irakurtzia, bidaiatzia... loiba txiki bat be bada-kat eta harekin disfrutatzia tokatzen jata oin. Eta sasoi darian, perretxikotara juatia, hori da gehixen gustatzen jatana.

Besterik esateko?

Lankidieri eskerrak emotia nahi dotset, neretako euki nekiazen munduko lankiderik onenak izan dira eta. Eskarrik asko daneri!



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Telefonoa 75 24 09

ARRANO *tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”



ETORRI ETA GOZATU
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK
etxera

ETORRI ETA GOZATU



ARRATE IRRATIA

asteartero
12:40etan

Soraluzeko berriak
zure etxean.

Pil-pileanen eskutik.



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE



HNOS. BENITO
ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko
menua eta
pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE



Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak

ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teleline.es

etxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

Eskelak,
urteurrenak,
oroitzak...



Prezioa:

60
euro

Bazkideak

30
euro

SORALUZETAR GUZTIEN ETXERA HELDUKO DIRA

Soraluzeko PIL-PILEAN Herri Aldizkaria

Deitu 943 75 13 04 ra

2005

URTEKARIA



URTARRILA



SAPA ITXI ETA AGUR ARMAGINTZARI

Armagintza, 5 mendetan zehar gure herriari izena, ospea eta lana eman zion ofizioa, 2005. urtarrilean amaitu zen, SAPA (Sociedad Anonima Placencia de las Armas) ixtean. Langileak Andoainera.

OTSAILA



ETORKINAK PAPER BILA

Espainiako gobernuak etorkinek normalizazio eskaera egiteko aukera berriak jarri zituen otsailean. Orduan, 155 etorkin zeuden erroldaturik Soroluzeko Udalean. Euretako batzuen testigantza jaso nahi izan genuen.

MARTXOA



JUANJO URRUTIA HIL ZEN URUGUAIN

Uruguain errefuxiatuta 15 urte egin eta gero hil zen Juanjo Urrutia soroluzetarra, gaixotasun luze baten ondoren. Juanjoren heriotza salatzeke eta iheslariak etxera ekartzeko eskatuz, hainbat ekitaldi egin zen.

APIRILA



OLATIK ESTAZIORAKO BIDE BERRIA

Apirilaren saihesbide berria inauguratu zuten Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak, Saihesbide berriak herrigunean zirkulazio aldaketak ekarri ditu, semaforoen kentzea, esaterako.

MAIATZA



RAMIRO LARRAÑAGAREN HERIOTZA

Maiatzaren 19an hil zen Ramiro Larrañaga historialaria. Ramiro, armagintzaren inguruko bere ikerketa lanegatik nabarmendu zen. Herriari, monografia historiko liburu paregabea utzi dio. Musikari aparta ere ba omen zen.

EKAINA



GALIPOTEKO JAIA BIGARREN URTEZ

Ekainaren 18an ospatu zen Galipoteko jaien bigarren edizioa. Euskal musika tradizionala, pop kantuak, bossa novak eta fadoak entzun ahal izan ziren Galipotean.

UZTAILA



GAY ETA LESBIANEN ESKUBIDEEN ALDE

Udal Batzarrak aho batez onartu zuen "Lesbiana, gay eta bisexualen eskubideen berdintasun osoa"ri buruzko mozioa eta hauen alde lan egitera konprometitu zen.


ABUZTUA



SEMAFOROAK KENDU DITUZTE

Bide berriak herri guneko zirkulazioan aldaketak ekarri ditu. Norabide bakarrean doaz orain autoak eta horrek herria famatu zuten semaforoak kentzea ahalbidetu du.

IRAILA



JAURLARITZAK PRESAK BOTATZEKO ASMOA DU

Eusko Jaurlaritzako Ur zuzendaritzak darabilen proiektuaren berri eman genizuen irailan, Soraluze uholdeetatik gorde eta ibaiaren antolamentu berria helburu duena.

URRIA



DIPUTATU NAGUSIAREN BISITA

Txabarrik diputazioak herrian egingo dituen inbertsioen berri eman zuen. Sagar Errekako bidegurutzea(0,6milioi), Kiroldegiko txapela(0,5), Eliza(0,5) eta Urkulutik Eibarrerako ur transbasea(1,4).

AZAROA



SAHK HERRI-BATZARRA DEITU ZUEN

SAHK Herri Batzarra deitu zuen azaroan Udal Gobernuaren informazio falta salatu eta hirigintza arloan (diputazioaren inbertsioak, Erregetxeko aparalekuak eta PER-a) hartutako erabakien gainean eztabaidatzeko.

ABENDUA



EGAÑA TXAPELDUN HANDIA SAN ANDRESEN

Andoni Egaña bertsolaria elkarrizketatu genuen San Andresen, bertsolari finala jokatu baiño egun batzuk lehenago. San Andresko bertso afariak mesede egin zion txapeldunari.



SANTA AGEDA ESKEAN



GALTXAGORRIAK JAIETAN

2005



KORRIKA SORALUZETIK



TXALAPARTA IKASTEN

2005



BAI EUSKARARI



BERTSO BAZKARIA

LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g Tf: 943752150
138 Postakutxa Faxa: 943752118

SORALUZE

ARMENDIA JATETXEA



Ezozl Auzoa, 11
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

Juan Mari Arraindegia

**Eguneroko
arraina
eta konjelatuak**

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
Tfnoa 943 75 24 40
Partikularra 943 74 03 69



IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Kontulan Aholkularitza S.L.

**Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA



VIDAL frutadenda

Etxaburueta 2
Tel. 943752055

Mendata taberna



Berezitasunak:
*Txipiroiak, Barazki
Menestra, Gixauak...*
Asteburuan plater
konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)
Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa



Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Tellería, 6 bis - Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es



Diseinua eta Formena

Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



Begoña Urdaitegia

Hestebete bereziak:

- Iberikoak
- Pateak

Hel.: Merkatu Plaza
Telf.: 943 75 3009

Jauregik eta Olazabalek 22-17 galdu zuten DVko finala



Iñaki Jauregi Plazentziatarrek eta Olazabal nafarrak (Areso) osatutako bikoteak 22-17ko emaitzaz galdu zuten DV Torneoko finala. Finala go-

rabeheratsua izan zen. Partiduko lehenengo zatian Errea eta Oteiza 13-5 aurreratu ziren. Bazirudien partida ondo bideraturik zeramatala. Orduan Jauregi eta Olazabalen erre-akzioa etorri zen, eta 16na berdintzea lortu zuten. Jauregik adierazi digunez lan haundia egin behar izan zuten berdinketa lortzeko eta partidua hondarrera juxtu samar iritsi ziren. Azkenean ezin izan zuten 17 tanto baino egin. Jauregi pozik dago egindako partiduaekin eta esker oneko Zarautzera joan ziren Plazentziako jarraitzaile guztiekin.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

JAUREGI

DV torneoko finalan

Errea-Oteiza	22
Olazabal-Jauregi	17

LASKURAIN

Berasaluze-Laskurain	18
Mendizabal-Escudero	9

Del Rey-Zubieta (lesionatu egin zen)	17
Etxaniz-Laskurain	15

ATXOTEGI

Atxotegi min hartuta dago, eta osatu bitartean ez du partidurik jokatuko.

FUTBOLA

Abenduaren -17-18 ko emaitzak

Eibartarrak B 2- Soraluze 1 (erreg.)
Jubenilek atsedenaldea izan zuten.
Eibartarrak 4- Sora 0 (kad.)

Mendia bigarren Euskadiko duatloian

Ane Mendia azpitxapeldun geratu da 2005. urteko 23 urtez azpiko Euskadiko duatloi txapelketan. Guztira, 7 duatloitan hartu du parte urte guztian zehar eta denbora denak batura, berea izan da bigarren markarik onena. Anek Duatloia, Triatloia, txirrindularitza eta krosa praktikatzen ditu. Aurten ere, 2. urtez Debarrena txirrindulari taldean (Gipuzkoako bakarra) korrituko du. Duatloi eta triatloiak udaberrian



hasiko dira, eta bitartean Anek kirol egiten jarraitzen du. Urte bukaeran Azpeitira joango da, 10 kmko San Silvestre antxixiketaldian parte hartuz.

Gogortuz
Fisioterapia zentrua

Oier Oregi Unamuno
943 75 00 22

Santa Ana kalea 7 · Soraluze Gipuzkoa

KREA
Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI
Tel.: 635731268

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

pilpilean

PIL-PILEAN ALDIZKARIAN IRAGARKIA JARRI NAHI DUZU?

Soraluzetar guztiengana iristeko modurik merkeena eta eragingorrena!

Deitu 943 75 13 04 edo telefonora (Ane).
Soraluzeko Pil-pilean Herri Aldizkaria

Gabonetako AGENDA

Aurtengo gabonetan ere hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango da herrian. Udalak, KZ Guneak eta Parrokiko Taldeak antolatutako ekitaldiak dira ondorengo agendan bildu ditugunak.

Astelehena, ABENDUAK 26

Goizeko 11:30etan liburutegian, Heriz MAGOA.

Asteartea, ABENDUAK 27

Goizeko 11etan, 4-9 urteko ikasleak, liburutegian, Goringo Taldea. IPUIN KONTAKETA.

Arratsaldeko 6:00etan kiroldegian. KARAOKEA.

Asteazkena, ABENDUAK 28

Goizeko 11etan, 4-9 urteko ikasleak, liburutegian, Joseba Ramirez. IPUIN KONTAKETA.

6:30etan haur eta gazteek zesta puntan jolasten ikasteko aukera izango dute Kiroldegian, ZESTA PUNTA. Ondoren, 7:30etan, profesionalen arteko exhibizio-partida.

Osteguna, ABENDUAK 29

QUAD eta MOTO TXIKIAK. Goizeko 11:30etatik 13:30etara eta arratsaldeko 4retatik 7etara kiroldegian.



Ostirala, ABENDUAK 30

EGUBERRIETAKO HAUR PARKEA.

Goizeko 11:30etatik 13:30etara eta arratsaldeko 4retatik 7etara kiroldegian.

Ezoziko Ama Abesbatzaren Eguberrietako Kontzertua.

Arratsaldeko 8:00etan, elizan.

Astelehena, asteartea, asteazkena URTARRILAK 2/3/4

Ludotekan.4eta 5 urtekoak: 10:00etan; LH1-2: 11:00etan; LH 3-4: 12.00etan. Eskulan Tailerrak

Astelehena, asteazkena, URTARRILAK 2/4

11:00etatik 13:00etara. DBHko ikasleentzat. KZgunean Ikasi MP3-a erabiltzen. Musika jaitsi, grabatu.

Arratsaldeko 4:30etan . DBHko ikasleentzat. Kapillan Zinea

Asteartea, URTARRILAK 3

Arratsaldeko 15:00etan zubitik, Txuri Urdinera irteera patinatzerara.

Osteguna, URTARRILAK 5

Arratsaldeko 7:00etatik aurrera herrian zehar, Erregeen kabalgata.

Larunbata, URTARRILAK 7

11etatik 3retara eta 4etatik 7etara, kiroldegian, LA BOMBONERA. 3x3 Futbol Txapelketa.



Igandea, URTARRILAK 8

11etatik 15etara eta 16etatik 19etara Kiroldegian Txirrintulari Lasterketa (Simulagailuekin).



Javier Alonso Zelaia
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

PLACENCIA
KONTSUMO KOOPERATIVA

Esku eskura ! Telf.: 943 75 13 45

Argazki zaharra



Iturria: Maria Cristina Alberdi.

1933. urtean jaiotzarekin

G abonetan neska-mutiko taldeak jaiotza hartu eta kalez-kale ibiltzen ziren limosna eskean, gabon kantak abestuaz.

Talde hontakoak hauek dira:

Goixan ezk.esk

Jesus Arizaga (+), Gonzalo Arizaga (+), (ezezaguna), Jesus Oregi (+), Jose Mari Argarate, Alfonso Aristi (+), Juantxo Maiztegi (+).

Erdizcan

Ramiro Larrañaga (+), Kontxita Maiztegi, Maria Arantzazu Argarate, Maria Felisa Arana, Mari Tere Alberdi, Maria Paz Uzin (+), Margarita Garate, Carmen Campos, Piedad Larrañaga, Agustina Zabala, Martin Aristi (+), Adora Bolunburu (bitartian)(+).

Behian

Florentino Arizaga, Consuelo Bolunburu (+), Jose Luis Larrañaga, Maria Angeles Leturiondo, (ezezaguna), Francisco Alberdi *Pitxita* (+).

Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!



Deitu

943 75 13 04 ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net

Aurreko alean...



ERANTZUNA
Lehio bat soberan

IRABAZLEA
Santiago García





Ugaraxo

2005eko abendua



**Heldu dira Olentzero
eta Mari Domingi!!**



Antzerkiarekin gozatzzen



Berriz ere, hemen gaituzue zuek entretenitzeko asmotan. Oraingo honetan zer dakarkizugun, ba... laister jakingo duzue.

Haur hezkuntzako haurrek, urtean zehar hainbat antzerki egiten ditugu, gure hizkuntza hobetzeko asmoz eta era berean ondo pasatzeko, asko dibertitzen bai gara.

Gu bost urteko haurrak gara eta ikasturte honetan, hau da egin behar dugun lehengo. Izenburua denontzat ezaguna izango zaizue "Sagutxo Kaskarina"

Haur Hezkuntzako beste geltako gure lagunak gonbidatzen ditugu gure emaldia ikustera eta denok oso gustora pasatzen dugu, beraiek ikusten eta gu antzetzten.



Zuek ere ikas dezazuen, hemen doakizue garai honetarako hain polita den olerkia.



*Gabonak heldu dira
laister Olentzero
denok egoten gara
poz-pozik urtero.
Jostailu eta opari
ditugu espero
ekarriko dizkigu
idatzi ezkeru.*

Orain burua nekatzea nahi?
Asma itzazue asmakizun hauek:

*Zorroan eskutitzak ditut,
eta banatu egiten ditut
Nor naiz ni?*

*Urtean behin etortzen zaigu,
ahoaan pipa du, oso lodia da.
Nor da?*



TXIKI - INKESTA

Ze eskatu dotsezu Olentzerori eta Mari Domingini?
Erregiak be joaten dira zure etxera?

GORKA SUDUPE, 9 URTE, 4A

Tatuajiak egitteko makiña bat eta Gameboy-rako jolas bat. Oindiok ez dot idatzi gutuna, ostiralian idatzikot. Erregieri momopatin bat eskatu dotset



NORA LETURIONDO, 9 URTE, 4A

Bideo-kamara bat eskatu dot, grabatzia nahi dot zela hazten naizen. Erregieri kolonia bat eskatu dotset. Baltasar da nere erregerik gustokuena, kabalgatetan berakin urtetzen neban eta.



NEREA IÑARRA, 9 URTE, 4A

Game boy Adbancesp eskatu dotset, eta aterki bat bebai. Erregiak be etortzen dira gure etxera baiña erregalo gutxiago ekartzen dabe. Batzutan eurak nahi dabezena.



JOSE ROMERO, 9 URTE, 4A

Oindiok ez dotset eskatu ezebe. Erregieri gaur idatzi bihotset kartia. Gabonak gustatzen jataz oparixak emoten dostezelako. Txori bat eukitzia gustauko jatan.



IBON BASALDUA, 9 URTE, 4A

Play Stationerako jolas bat, Play Mobil eta espia maletin bat. Espiak gustatzen jataz, egoten zaralako mendixan bezala, eta gero eskailerak eta salto egiten.



MAIALEN VILA, 9 URTE, 4A

Disko batzuk musikia entzuteko, discman bat eta Gameboy-rako joku bat. Munduko erregalorik onena izango zan neretako animala txiki bat, etxian eukitzeko.



ANDEREÑO MARISARI, 4. mailakoak

Zuri eskertzera gatoz
eginiko lana
euki duzun pazientzia
ez da izan makala

Hemendikan aurrera
hartizu atsedena
disfrutatu ezazu
baduzu ta aukera

Inoiz ez dugu ahaztuko
zuk irakatsia
bihotzez nahi dizugu
Agur esatia



GABONETAKO HAUR PARKEA

Joan zen ostiralean, abenduak hamaseian, Bilboko Gabonetako Parkera joan ginen. Goizeko bederatzi eta erdietan eskolara joan beharrean, Estazioko geltokian autobusa hartu eta hirugarren mailatik gora Bilboruntz abiatu ginen. Haruntz gindoazela, bidetik aireportua ikusi genuen eta ai! Ze suertea! Hegazkin bat gertu-gertutik lurra hartzen ikusi genuen.

Hamar t' erdiak aldera heldu ginen B.E.C.ra eta berehala sartu ginan bertara. Barrutik sarrera erraldoia ikusi genuen, gure eskola baino ... bost, sei, edo aldiz handiagoa. Atrakzioak zeuden tokia ere ikaragarria zen eta han danetik zegoen. Baina hori ikusterakoan, hau urduritasuna! Danean ibiltzeko gogua, baina irakasleek ez ziguten baimenik ematen, bazkaltzeko tokia hartu arte eta gure ekitaldirako eskenatokia non zegoen jakin artean. Hori ikusi ondoren andereñoek libre laga gintuen. Orduan bai, danean ibili ginen. Norian, Gartzetako ziburuan, Zezen mekanikoan, Karsetan, e.a. ibili ginen. Baita ere eskulanetan aritu ginen

Hamabi t' erdietan, eskolan prestatutako ekitaldia aurkeztu genuen. Hirugarren eta laugarren mailakoek dantza egin genuen.

Eguardian, bazkaltzeko elkartu ginen eta ondoren berriz ere jolastera. Hirurak eta laurdenetan elkartu ginen bueltatzeko baina batzuk falta ziren eta beren zain egon behar izan ginen oso urduri autobuseko ordua jarrita zegoelako, bueno, azkenean azaldu ziren eta autobusean sartu ginen neka-neka eginda.

Oso ondo pasatu genuen, datorren urtean berriz ere bueltatzeko asmoz .
Plaentxi, LHIko 4. mailako ikasleek.



HAMABOSTALDI KULTURALA GAZTETXEAN

Abenduak 25, domekia

19:00etan zinea:
"Un lugar llamado milagro"

Abenduak 26, astelehena

Auzolana Danok Gaztetxia txukuntzera!

Abenduak 27, martitzena

20:00etan ipuin kontalaria:
"Ez sufritzeko erremedioak"

KONTSUMOAK
KONTSUMITZEN NAUJI!

Abenduak 28, eguaztena

18:00etan bideoa eta mahaingurua

Abenduak 29, eguena

19:00etan Kilikoloren antzerkia

22:30etan kontzertu akustikoa: Napoka Iria

Abenduak 30, barixakua

18:00etan hitzaldia "Kulturaren komertzializazioa"

20:00etan Etxeraten enkartelada

22:30etan kontzertua: Atraku, Paso de Ti.

Abenduak 31, zapatua

12:30etan Truke azoka

01:00etan DJ Asi

Urtarrilak 1, domekia

19:00etan zinea: "Ciudad de Dios"

Urtarrilak 3, martitzena

20:00etan Zapatisten bideo eta hitzaldia

Urtarrilak 6, barixakua

22:00etan Fly Shit + Supercools

Urtarrilak 7, zapatua

19:00etan Bertso zirko poteoa

21:30etan Gaztetxeko afarixa

Urtarrilak 8, domekia

19:00etan Dokumentala



GURE ZERBITZUAK

ELIZPE

Hortz Klinika

- Odontologia orokorra (ateratzeak, enpasteak)
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Protesiak (portzelanazko estalkiak)
- Ortodontzia (haur eta nagusiendako)
- Hartz estetika
- Zuriketak
- Zirugia
- Implanteak
- Endodontzia
- Ortodontzia ikustezina

- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN...

KOADRO MEDIKUAK: LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ-PROGRAMA)

OLENTZERO eta MARI DOMINGI *Soraluzen*

Abenduaren 24an 12etan Plaza Barrixan



Antolatzaileak

- Plaentxi Herri Ikastetxea
- Urrats Dantza Taldea
- Soraluzeko Musika Eskola
- Pil-pilean Euskara Elkarte
- Ibilixan Ibilixan Bertso Eskola

Zorionak eta urte berri on!!

Laguntzaileak

- Soraluzeko Udala
- Gipuzkoako Kutxa
- Euskadiko Kutxa



Soraluzeko Dantza Taldea 50. URTEURRENA

deialdia
dantzari
izandakoei

2006.urtean Soraluzeko Dantza Taldeak 50 urte beteko ditu. Hori ospatzeko, ekintza ezberdinak antolatzen ari gara. Besteak beste 50 urte hauetan dantzan taldean ibilitako jendearen zerrenda osatu nahi genuke. Horretarako, 1956tik 2005era bitartean dantza taldean parte hartu duzuen soraluzetarron laguntza behar dugu ezinbestean.

**DANTZARIA IZANDAKOA
BAZARA EGIZU ZURE
INGURUKOEN ZERRENDATXO
BAT ETA HELARAZI GURI
MESEDEZ (Iratxo goxodendan).**

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero deitu, **619 98 03 11** (Letizia) edo **652 74 14 96** (Amaia) mugikorretako batera.

**ESKERRIKASKO
ZURE LAGUNTZAGATIK.**

Antolatzaileak:



Soraluzeko Euskal Jai Batzordea
Urrats Dantza Taldea